


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n PRESTAKUNTZA ETA
IKERKETA UNITATEEI LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA**

HITZAURREA

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2009ko azaroaren 19ko bileran, UPV/EHUn Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak sortzeko esparrua onartu zuen, unibertsitatearen ikerketa-taldeak eta erakundearen helburu orokorrak ildo berean jarriko dituzten estrategia berriak ezartze aldera.

Ikuspegi horren eta UPV/EHUren Ikerketa Planaren ildoen baitan kokatutako deialdi honen xedea bikaintasuneko ikertzaileen masa kritikoa sortzea da, ikerketa arlo guztietan. Hala, ikertzaileen jarduerak eta doktoreen prestakuntza areagotu ahal izango dira, kalitateari nahiz kuantitateari dagokionez. 2010. urtean Nazioarteko Bikaintasunerako Campusaren izendapena jasotako Euskampus Proiektuaren testuinguruan egin da. Proiektu horrek nazioartean nabarmenduko diren prestakuntzako, ikerkuntzako, eskualdatzeko eta berrikuntzako inguruneak sortzea ahalbidetuko du. Horrez gainera, nazioartean erreferente diren beste unibertsitate batzuekin eta I+G+bko erakundeekin aliantzak sortzea erraztuko du, pertsonen mugikortasuna sustatuko du, eta ikerketa eta prestakuntzarako programa bateratuen sorrera bultzatuko du.

Ikerketako eta Prestakuntzako Unitate (IPU) gisa onartutako UPV/EHUren ikerketa-taldean elkartzeetara bideratutako finantzaketa "konpromisokako baliabideak" formulazioan oinarrituko da, gaur egungo unibertsitatearen finantzaketa-iturriei kalterik egin gabe. UPV/EHUren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren artean hitzartutako 2011-2014ko Finantzaketako Unibertsitate Planaren esparruan garatutako Ikerketa Programaren kontratuaren bitartez emango dira giza baliabideak eta baliabide materialak. Ikerketa Errektoreordetzari atxikitutako gestio teknikarien 29 lanpostu sortuko dira, eta 600.000 euro bideratuko dira guztira, ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera. Kopuru hori areagotu ahal izango da, eskatutako laguntzen eta aurrekontuetan eskuragarri dagoen kopuruaren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposatu, eta 2011ko maiatzaren 26ko Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketako Errektoreordetza honek Ikerketa eta Prestakuntza Unitateak eratzeke deialdi hau argitaratzea erabaki du.

1. artikulua. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea UPV/EHUren Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak (PIUak) eratzea da, eskatutako eskaerak eta beren ebaluazioen emaitzak kontuan hartuta. Era berean, dagokion prozedura ezarriko da 2. artikuluan definitutako ikerketa-egiturak unitate hauetara sartzeko, eta, gero, horien jarraipena eta hartutako konpromisoen gaineko ebaluazioa egiteko. Hortaz, hauxe da bilatzen duguna:

- a) Erakundearen helburu globalekiko ikerketa-egituren identifikazioa bultzatzea eta horren erantzun kide egitea.
- b) Bideak ezartzea, ikerketa-egiturek beren berezitasunen araberako planak eta ikerketa- nahiz prestakuntza-jarduerak egin eta bultza ditzaten.
- c) Baliabideak esleitzeko eredu bat egituratzea, gardentasunean eta eskuratutako emaitzen eta lotutako baliabideen arteko zuzentasunean oinarrituko dena.

Horren guztiaren helburua bikaintasuneko inguru zientifiko teknologikoa sortzea da UPV/EHU, beren adierazle atxikiak hobetzea ahalbidetuko duena.

2. artikulua. PRESTAKUNTZA- ETA IKERKETA-UNITATEAREN (PIU) DEFINIZIOA

Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak (PIU), oro har, UPV/EHUren ikerketa-egituren elkartze gisa definitzen dira. Horren bidez sortutako masa kritikoa bidez ezagutza eta prestakuntza maila

handiagoa lortuko da, elkartzea bera osatzen duten egituren ekoizpenaren batuketa soilaren bidez baino. Horrela, ikerketa- eta prestakuntza-jardueraren hedapena eta oihartzuna areagotu egingo dira.

Deialdi hau dagokienez, ikerketa-egitura izango dira Ikerketa Institutu propioak eta mistoak, eta UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak onartutako ikerketa-talde aktiboak.

Era berean, beren jarduera UPV/EHUn garatzen duten Bikaintasuneko eta Oinarrizko Ikerketa Zentroak (BERCak) prestakuntza- eta ikerketa-unitatetzat hartzen dira. Dena den, deialdi honetan ez dute finantzaketarik jasoko, BERC gisa egiten duten jardueretarako finantzaketa jasotzen duten bitartean.

Azken finean, PIUa unibertsitatearen ikerketa-egituren aliantza gisa eratzten da. Helburu komunetan oinarrituta, PIUek prestakuntza- eta ikerketa-jardueraren hedapena eta kalitatea areagotu nahi dute, helburu horiei lotutako adierazle jakinak hobetuta.

Oro har, UPV/EHUren hiru ikerketa-egituren edo gehiagoren elkartzeak PIUtzat hartuko dira. Salbuespen gisa, bi ikerketa-egitura edo bakarra PIUtzat hartu ahal izango dira, eraketarako finkatutako eskakizunak betetzen baldin badira, deialdi honen 3. artikuluan zehazten denaren arabera.

PIUen helburu nagusietako bat doktoreen prestakuntza da; horregatik, hain zuzen, deialdiak doktorego-programetara atxikitako doktoreen gutxienerako kopurua eskatzen du. Helburu horrekin, ikerketa-egiturek beren kideen parte-hartzea sustatuko dute doktorego-programetan, eta parte-hartze horren berri emango dute.

Deialdi honen emaitza gisa sortutako PIUak 2004/12/31ra arte egongo dira indarrean. Horien jarraipena lortutako emaitzen ebaluazio positiboaren eta aldi berrirako proposatutako konpromiso berrien arabera erabakiko da.

3. artikulua. PIU-en EZAUGARRIAK

PIU bat sortzeko proposamenaren hasierako onarpena Ikerketako Errektoreordetzari dagokio, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen alde aurreko aldeko txostena jaso ondoren. Eraketarako, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) PIU bat hiru ikerketa-egituren edo gehiagoren elkartzearen bidez osatuko da. Gutxienez 10 doktore bildu beharko ditu, UPV/EHUko II iraunkorrek, irakasle laguntzaileak, Ikerbasqueko ikertzaile atxikiak edo Ramón y Cajal programaren ikertzaileak izan daitezkeenak. Denek izan beharko dute kide aktibo dagoen doktorego-programaren batean.
Salbuespen gisa, PIU izateko eskaera ikerketa-egitura bakarrak edo bik egiten dutenean, gutxienez 15 langile izango dira.
Gutxienerako horiek PIUa indarrean dagoen bitartean mantendu beharko dira.
- b) PIU bat eratze aldera, ikerketa-egitura bat beste batzuekin batera aurkezten denean, egitura horien kide guztiak PIUren barruan egongo dira, hura eratzten den unetik.
- c) PIUak ikerketa-egitura bati atxikita ez dauden ikertzaileak hartu ahal izango ditu.
Langile horien artean, PIUa eratzeari begira, gehienez, doktorego-programetan diharduten bi ikertzaile zenbatu ahal izango dira, aktibo dagoen doktorego-programa baten kide gisa.

aurreko puntuan ezarritako baldintzen eta gutxiengoaren zenbaketa kontuan hartuta.
- d) PIUak, osatzen duten egiturek garatutako ikerketa-proiektuen bidez zehaztutako ikerketa-jardueraz gainera, doktorego-programen prestakuntzako alderdiak garatzeko xedea izango du.

- e) PIUak Koordinazio Kontseilu bat eratuko du, PIUa osatzen duten ikerketa-egitura bakoitzaren ordezkari batek osatua, gutxienez.
- f) PIUko Koordinazio Kontseiluko kideen artean, koordinatzaile bat izendatuko da, kanpoko eta barneko ordezkari izango dena.
- g) PIUak batera egin beharreko jarduerak deskribatzen dituen Memoria egingo du. Bertan, PIUren materiala, baliabide teknikoak eta giza baliabideak partekatzeko baldintzak ezarriko dira.
- h) Ikertzaile batek ezin izango du PIU bati baino gehiagori atxikita egon, deialdi honen ondorioetarako. Era berean, onartutako ikerketa-taldeak ezin izango dira banatu, PIUa eratzeke eskaera aurkeztu ahal izateko.
- i) PIUko kideek hainbat doktorego-programatan parte hartu ahal izango dute, baldin eta bera osatzen duten ikerketa-egiturek izaera multidiziplinarioa badute edo PIUren gaiarekin bat ez datorren doktorego-programarik ez badago.
- j) PIUra atxikiko dira langile laguntzaileak, prestatzen ari diren ikertzaileak eta PIUa osatzen duen ikerketa-egiturekiko aldi baterako lotura duten beste pertsona batzuk.

PIUak urteko jarraipen-txosten bat aurkeztuko du. Bertan, PIUak eta Ikerketako Errektoreordetzak sinatutako itunean hartutako konpromisoen betetze maila balioetsiko da.

Hiru urtean behin, memoria bat aurkeztuko da, non jasota geratuko diren aldi horretan egindako jarduera guztiak eta hurrengo aldirako konpromiso-dokumentua, baldin eta PIUak bere jarduerarekin jarraitzeko asmoa badu.

Betetze mailaren eta Ikerketako Errektoreordetzarekiko PIUren konpromiso-dokumentu berriaren arabera, memoriak ebaluazio positiboa lortuz gero, PIUak jarraitu ahal izango du.

4. artikulua. LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzen xedea, dagokion kasuan, PIUa osatzen duten ikerketa-egituren arteko koordinazioko gastuak estaltzea da, horren egonkortasuna bermatze aldera. Laguntza hauek PIUa osatzen duten ikerketa-egiturek beren ikerketa-proiektuak egiteko lortzen duten finantzaketaren osagarri izango dira.

PIUak Ikerketako Errektoreordetzak esleituko dituen baliabide ekonomikoak izango ditu. Esleipena proposamenen aurkeztutako konpromiso-dokumentuan jasotako adierazle edo parametroen bilakaeraren arabera egingo da.

Finantzaketak bi osagai izango ditu:

1. Finantzaketa finkoa, PIUaren onarpenez esleituko dena eta urtero banatuko dena, PIUa indarrean dagoen bitartean. Lehen urtekoa hartuko da aintzat, 2012/12/31ra arte.
2. Finantzaketa aldakorra. Urteko jarraipen-txostenaren ebaluazioaren ondoren esleituko da. Finantzaketa osagarri hau hurrengo urterako emango da, baina ez da finkoa izango horren ondorengo urteei begira. Urteko txostena ez aurkezteak PIUak finantzaketa aldakorrari uko egitea inplikatzeko du.

PIUa onartzen denean, horren finantzaketa finkoa eta eskuratu dezakeen finantzaketa aldakorraren gehieneko kopurua adieraziko dira. Azken zenbateko horri hartutako konpromisoen urteko betetze mailaren ehuneko aplikatuko zaio.

Langileen esleipena egiteko irizpideak hauek izango dira: tamaina, jardueraren bolumena eta unitatearen eraketa justifikatzen duen helburuen garrantzia.

5. artikulua. KONPROMISO-DOKUMENTUAREN PROPOSAMENA

Ikerketako Errektoreordetzaren eta PIU bakoitzaren artean sinatutako Konpromiso Dokumentua prozedura honen arabera garatuko da:

Hiru urtean behin, adierazleen multzo bati lotutako helburu komun batzuk ezarriko dira.

Konpromiso-dokumentuan zehazten dira arloka multzokatutako adierazleak eta UPV/EHUren 2007-2011ko Plan Estrategikoan definitutako helburu estrategikoak.

Guztira, 34 adierazle ageri dira; horien artetik, 11 nahitaez bete behar dira, eta gainerako 23ren artetik 12 aukeratu behar dira.

Puntuazioaren % 75 nahitaezko 11 adierazleei lotuta dago.

6. artikulua. PIU-AREN ALDAKETAK, BERA OSATZEN DUTEN IKERKETA-EGITUREN ALTEK EDO BAJEK ERAGINDA

Deialdia ebatzi ondoren, eta aukeratutako PIUak argitaratzen diren unetik, beste ikerketa-egitura batzuei sortutako PIUren batera sartzeko aukera emango zaie. Prozedura hau urtean behin egingo da, jarraipen-txostena aurkeztearekin batera.

Horretarako, Ikerketako Errektoreordetzan eskaera bat aurkeztu beharko dute, aipatutako egituren arduradunek sinatuta. Horri "UPV/EHUren PIUa sortzeko akordioaren gehigarri" bat erantsiko zaio, egituraren arduradunak berak eta sartu nahi den PIUren Koordinazio Kontseiluko kideek sinatuta, eredu arautuaren arabera.

Sarrera horiek PIUaren eta Ikerketako errektoreordearen artean sinatutako konpromiso-dokumentuaren eguneratzea eragingo dute. Horrek PIUaren finantzaketaren eguneratzea ekar dezake.

Baja emateko, ikerketa-egituraren arduradun gisa izendatutako pertsonak eskaera egingo dio Ikerketako Errektoreordetzari, eta PIUren koordinatzaileari jakinaraziko dio. PIU batean sartutako ikerketa-egitura batek uzteak unitate hori desegitea eragin dezake.

Ikerketako Errektoreordetzak PIUa desegitea edo jarraitzea erabakiko du, aldatutako parametroen arabera. Horrek PIUaren finantzaketa eguneratzea ekar dezake.

Nolanahi ere, aldatetaren ondoriozko PIUak 3. artikuluan finkatutako gutxieneko ikertzaileen kopurua bete beharko du.

Modu osagarrian, Ikerketako errektoreordeak PIUa desegin dezake, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen aurretiko txostena izanez gero.

7. artikulua. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

0. irizpidea: PIUaren gaia. PIUek ezagutza eta gaitasuna batu behar dituzte, gizartearen eskaerei eta beharrei erantzuteko. Horretarako, ikerketa-egiturak arlo espezifiko edo estrategikoetan bilduko dira, eta elkartzearen nazioarteko onspena bilatuko da.

Horren harira, Euskampus proiektuan, hots, 2010eko Nazioarteko Bikintasunerako Campusean zehaztutako ildo estrategikoekin bat egiten duten proposamenak lehenetsiko dira. Modu berean, Bordeleko Unibertsitatearekin (Pôle de recherche et d'enseignement supérieur (PRES), Bordeleko lau unibertsitateak, l'Institut polytechnique de Bordeaux eta l'ENITAB et Sciences Po Bordeaux hartzen dituen) eta Akitania-Euskadi-Nafarroa-Sarearekin mugaz gaindiko harremanak ezartzearen

alde egiten duten proposamenei lehentasuna emango zaie.

PIUak zehaztu beharko du bera osatzen duten ikerketa-egituren arteko lankidetzaz zer gairen inguruan izango den.

Irizpide honek gehienez 20 puntuko balorazioa jasoko du, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira PIU izateko hautagai izaten jarraitzeko.

1. irizpidea: elkartzearen koherentzia. Hainbat egituraren batasuna balioetsiko da, eta baita beren elkartzearen egokitasuna ere. Proiektuaren helburuek eta ikerketako nahiz prestakuntzako jarduera komunek PIUaren sorrera justifikatu beharko dute. Egituren kopurua eta elkartzearen koherentzia.

- PIUaren osaketa, egitura, diziplinartekotasuna eta barne-koherentzia, proposatutako helburuekiko (gaia, doktorego-programaren prestakuntza, etab).
- Masa kritiko kualifikatua.

Irizpide honek 15 puntuko balorazioa izango du, gehienez.

2. irizpidea: Parte-hartzea proiektuetan, sareetan edo erakunde publiko edo pribatuekin eginiko kontratuetan. Zientzia arlo edo eremu bakoitzaren estandarren arabera ekoizpen zientifikoa, tamaina eta ikerketa-proiektuetarako deialdien bidez (estatukoa, europakoa edo beste jatorri batekoa) eskuratutako finantzaketa maila balioetsiko da. Azalpen modura, mugarik ezarri gabe, honako parametro hauek ematen ditugu:

- Ekoizpen zientifikoaren kalitatea eta oihartzuna (artikuluak, liburuak, ezagutzaren eskualdatzea, katalogoen bidezko azalpenak, etab.).
- Proiektu lehiakorren kopurua estatuan eta nazioartean.
- Ikerketa-kontratuen kopurua eta zenbatekoa.
- Finantzaketa maila. Azken urteotako baliabide ekonomikoak.
- Euskaraz zuzendutako doktore-tesiak, eta gaztelaniaz zuzendutakoak.
- Zuzendutako nazioarteko doktore-tesiak/zuzendutako doktore-tesiak guztira.

Irizpide honek 40 puntuko balorazioa izango du, gehienez.

3. irizpidea: PIUaren konpromiso maila eta ikerketa-egituren arteko sinergia maila: aplikagarriak diren kasuetan, item hauek balioetsiko dira, soilik azalpenezko izaeraz (ez murriztaileaz):

- Doktoreen prestakuntza.
- PIUak modu aktiboan parte hartzea, doktorego-programetan bikaintasuna lortzeko.
- Proposatutako arloan nahiz arlo orokorragoetan emaitza aipagarriak eskuratzeko aukera.
- Lortutako emaitzekin argitalpen garrantzitsuak, patenteak edo jakintza-eskualdatzeak egiteko ahalmena.
- Ikerketa kooperatiboetan edo sareko ikerketetan parte hartzea.
- Gazte ikertzaileen prestakuntza espezializatuan parte hartzea.
- Izaera handinahia (proposatutako helburuetara mugatuko ez dena).
- Emaitzei esker spin-off enpresak sortzeko ahalmena.

- PIUaren helburuak lan-egitasmoarekin eta aurkeztutako behar ekonomikoekin bateragarri egitea.

Irizpide honek 25 puntuko balorazioa izango du, gehienez.

Elkartzeak deialdiaren xedera bideratzea eta deialdiaren arrakasta areagotzea faboratzeko asmoz, Ikerketako Errektoreordetzak, lehen ebaluazioa egin ostean, PIUen bi eskaera edo gehiago bateratzea proposatu ahalko die eskatzaileei. Era berean, eskaeretan hobekuntzak proposatu ahal izango dizkie PIUetako kideei. 15 lanegun izango dira PIU proiektu berria aurkezteko.

8. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak UPV/EHUko Ikerketako errektoreari zuzenduko zaizkio, eta UPV/EHUko Erregistro Orokorrean (Leioa), campusetako erregistroetan edo ikastetxeetako erregistroetan aurkeztuko dira. Eskaerak HAAJAPE legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak honako dokumentu hauek bilduko dituzte:

- PIUa sortzeko eskaera
- PIUaren datuak
- Konpromiso-dokumentua, adierazleak hobetzeko proposamena barne
- Egitura bakoitzaren osaera

PDF formatuan aurkeztutako artxiboak bakarrik onartuko dira.

9. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko azken eguna 2011ko uztailaren 20a izango da.

10. artikulua. LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOAK

Ikerketako Errektoreordetzak kudeatu beharko ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzak, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren bidez.

11. artikulua. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Ikerketako Errektoreordetzak hamar egun izango ditu, gehienez, datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda ezagutzera emateko, eta bakoitzak falta duena zehaztu beharko du, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Zerrenda hori argitaratzen denetik, hamar lanegun izango dituzte dokumentazioa osatzeko. Epe hori igarotzean, baztertu egingo dira akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak.

Ebaluazio-irizpideei buruzko artikuluko ataletan zehaztuta dauden irizpideak UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak balioetsiko ditu.

Ebaluazio-prozesuan beharrezkotzat joz gero, ikerketa-proiektua Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial batetik bestera itzultzea eskatu ahal izango da. Lan hori itzultzaile espezializatuek egingo dute, eta laguntza eskatu duenak aztertu ahalko du, nahi izanez gero.

12. artikulua. EBAZPENA

UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak Ikerketako Errektoreordetzari aurkeztuko dio Prestakuntza eta Ikerketako Unitateak sortzeko eta laguntzak esleitzeko proposamena. Eskaerak

aurkezteko epea amaituta, 6 hilabeteko epea izango da, gehienez, deialdi hau ebazteko. Epe horretan ebazpenik eman ezean, eskaerak ukatutzat joko dira.

Ikerketako Errektoreordetzak izendapenezko ebazpenaren bidez jakinaraziko dio PIU bakoitzak arduradun gisa izendatutako pertsonari eskaera ukatu edo onartu egin duen eta zer kopuru esleitu dion.

Hilabeteko epea dago ebazpenari berraztertze-errekurtsoa jartzeko, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Era berean, aipatutako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi, eta bi hilabeteko epean.

13. artikulua. LAGUNTZA ESLEITZEKO BALDINTZAK

Aukeratutako proiektuei dagokien diru-laguntzaren berri ematean, PIUaren arduradunak kopuruaren behin-behineko banaketa egingo du, eta sinatu egingo du deialdiaren ebazpenean eta konpromiso-dokumentuan proposatutako finantziazio-baldintzak onartzeko agiria.

Ebazpena bidali denetik 10 egun natural igaro ostean Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak ez badu proposatutako finantziazio-baldintzen onarpena jaso, proiektuaren aurrekontua eskaerarekin proportzioan emango da.

14. artikulua. JARRAIPENA

Ikerketako Errektoreordetzak diruz lagundutako eskaeren jarraipena egiteko prozesua antolatuko du.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA

Interesdunak deialdiaren, oinarrien eta deialditik eratorritako ekintza administratibo guztien aurka egin ahal izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak (azaroaren 26koa) eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko Legeak ezarritako epe eta moduan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Salbuespenez, eta ezagutza arlo konkretuetan Unibertsitate intereserako egokia denean, Ikerketa Errektoreordeak PIU baten erakuntza proposa dezake, horrela hirugarren artikuluan dakarrena betetzeko epea atzeratuz eta gehieneko epea ezarriz.